

Herri Aldizkaria

otomotz

2004ko azaroa 101. alea

Zuena bai kasta!



Zumarragako Trikitixaren omenezko eguna ospatuko da abenduaren 12an

ERREPORTAJEA: KK IN'ZONA, GAZTELEKUKO FANZINE BERRIA
ELKARRIZKETAK: ANDER GABIRONDO - A. SALAMERO & J. LABAJOS
IZERDI PATSETAN: IGUNTZE ASEGINOLAZA

autonomoentzako eta mikroenpresetarako **mintegiak**



Zer behar dut Internetera konektatzeko?

Jakin ezazu zer onura ekar ditzaketen Informazioaren Teknologia Berriek Enpresa Txikien kudeaketan.

Banda zabalera, ADSLa, MODEM kablea, tarifa finkoa... Posta elektronikoa, Web orrialdea, etab. eduki nahi badituzu, **merkatuan aurkituko dituzun aukerak eta horietatik egokiena aukeratzeko irizpideak** aurkeztuko dizkizugu.

Goierri-Urola Garaia

azaroak 30

ORDIZIA

Goierri Lanbide Eskola

Orduetgia: 18:00-20:00

Informatzeko eta izena emateko:

902 252 595

www.miramondigital.com




cursos@miramondigital.com

Antolatzailea:



Miramón
Enpresa Digitala

Sustatzaileak:



www.megadenda.com

megadenda

ramos
Bergara, 6
20005 Donostia
Tel.: 943 42 63 50

bilintx
Fermin Calbeton, 21
20003 Donostia
Tel.: 943 42 00 80
(Jai egunetan zabalik)

Paseo Colon, 8
20302 Irun
Tel.: 943 63 17 26

Arostegieta z/g
20400 Tolosa
Tel.: 943 67 35 33

Ibargarai, 12
20570 Bergara
Tel.: 943 76 40 50

Megadenda
zure aukera musika eta liburutan



Mutua General de Seguros

Jose Luis Balenziaga

Areizaga, 3 URRETXU tel: 943 722599

ARGAZKI ZAHARRA



70eko hamarkadan 1972an jaiotako ikastolako haur talde bati ateratako argazkia. Batek baino gehiagok, adar jotzerik jasan nahi ez badu, etxean ezkutatuta eman beharko du denboraldi luze bat!

Goitik behera eta ezkeretik eskubira, lehen ilaran: M^a Jesus Zaldua irakaslea, Iker Antia, Mailu Palmero, Joseba Zaldua, Aitor Zaldua, M^a Mar..., Maite Makaia, Gotzon De Jesus, Aitor Chico, Gorka Esteve, Unai Urretabizkaia eta Nerea Txintxurreta. Bigarren ilaran: Karmele Intsausti, Beatriz Ruiz, Igor Parra, Lide Agirrezabal, Ana Sarria, Nekane Intsausti, Jon Guridi, Miriam Redin, Xabier Sudupe, Amagoia Kortaberria, Jose Antonio Mendizabal eta Gorka Enbil.

Hirugarren ilaran: Aitor Bastarrika, Oskar Perez, Xabier Zabaleta (?), Enrique Fernandez, Itziar Perez, Aloña Zubillaga, Jasone Pozueta, Maite Fernandez, Mikel Serrano eta Jon Urbizu.

Laugarren ilaran: Iban Fabian, Aitor Ovejero, Gorka Ovejero, Agurtzane Regorigo, Jone Larraza, Iñigo Luki, Itziar Salaberria, Anakris Zabala, Gurutze Jimenez, M^a Paz Etxeberria eta Eneida Mazmela.



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko udalak eta Zumarragako udalak emandako diru laguntza jaso du

Argitaratzailea: Zintzo Mintzo Euskaltzaleen Elkarte, Labeaga kalea 12, 20700 Urretxu. Tel: 943 03 64 74 / 605 71 87 73

Koordinatzailea: Asier Zaldua **Erredakzio kontseilua:** Unai Alzelai, Alex Areizaga, Aintzane Arizmendiarieta, Jon Balenziaga, Gorka Erostarbe, Maider Hernando, Jonmikel Insausti, Itziar Ormaetxea, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Igor Susaeta, Marian Toledo, Asier Zaldua.

Diseinua: Sebas Iturrioz. **Informatikaria:** Jonmikel Insausti. **Inprimategia:** GOI DESIGN - Zumarraga

Lege Gordailua: SS-742/96 **ISSN:** 1136-7318 **Tirada:** 2.000 ale. **Edizio digitala:** <http://www.geocities.com/Athens/Delphi/2202>

Otamotz aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Zumarraga eta trikitixa bet



Joxe Oria, Zumarragako Trikitixaren sortzailea, eta Itsasakorta, Oriarekin aritu zen bigarren soinujolea.



1982an ere herrian omenduak izan ziren. Ezkerretik eskubira: Mikel Alustiza eta Seberen, Migel, Inazio eta Joxe Urteaga.

Euskal Herri osoan Zumarragako izena ezagutzera eman duen talderik bada, hori Zumarragako Trikitixa da. 1920tik gaurdaino Oriatarrek Euskal Herriko txoko guztiak alaitu dituzte eta, euren gizatasun eta kastari esker, Zumarragako enbaxadore bikainak izan dira. Santa Lutzi bezperan ondo merezitako omenaldia eskainiko zaie eta zumarratarrek herriaren alde egindako guztia eskertzeko aukera izango dute. Joxe, Inazio eta Migel Urteaga anaiekin, Mikel Alustizarekin eta Garikoitz Lizarragarekin izan gara 84 urte hauetan egindako lanaz hitz egiten.

Zumarragako Trikitixa 1920an jaio zen, Urteagatarren osaba zen Joxe Oriaren eskutik. Joxe Urteaga, berarekin eta Joxe Migel Ormazabalekin hasi zen soinua jotzen. "Osabak trikitixa izugarri maite zuen. Amonak esan zidanez, ahotsa hezitza eraman nahi izan zuten, baina berak trikitixarekin jarraitu nahi zuen". Izan ere, Migel Urteagak dioenez, Joxe Oriak ahots bikaina omen zuen: "Trikitixa munduan entzun

dudan ahotsik onena zuen".

Joxe Oria panderojolea zen, baina normalean soinujoleak izaten duen protagonismoa zuen. Migel Urteagak dioen moduan, bera zen taldearen ardatza. "Soinujole askorekin ibili zen. Soinujole batek uzten zuenean, beste bat hartzen zuen; baina beti Zumarragako Trikitixa izenarekin ibili zen. Normalean alderantziz izaten da: soinujolea izaten da bikoteari izena ematen diona". Gainera, "disko zaharretan *Director: Joxe Oria* jartzen du eta ez du jartzen soinujolea zein zen. Tipa berezia zela eta fama handia zuela erakusten du horrek", dio Mikel Alustizak.

Hain zen handia Joxe Oriaren trikitiarekiko maitasuna, non hil arte panderoa jotzen jardun zuen eta Joxe, Inazio, Sebe eta Migel ilobak zaletu zituen. Joxe iloben etxean bizi zenez, Urteagatarrek (baita euren ondorengoak ere) trikitixa giroan hazi ziren. "Joxe hasi zen, baina gero eutsi egin diogu. Azkenean betebeharrira da, familian hasitakoa jarraitu nahia. Epeldetarrek ere familia tradizioari eutsi diote, baina ez da guk bezainbeste urte daraman familiarik", dio Mikel Alustizak.

Hainbeste urtetan eutsi izanak ez ezik, beste hainbat gauzek ere egiten dute berezi Zumarragako Trikitixa Mikelen ustez. "Teknika aldetik ez gara sekulakoak izan, baina izaera eta trikitixa ulertzeko era

berezia dugu. Izan ere, kaleko eta parrandako giroa bizi izan dugu beti. Joxek, berarekin ibili ziren soinujoleek eta nire osabek, bere garaian, gauza asko egin zituzten: bik kantatzen zuten, trikitixa desberdina egiten zuten... Osaba Joxeren soinua jotzeko era berezia da, Azkoitiko eskolako ez zen Joxe Migel Ormazabalek erakutsi baitzion. Kantatzeko era ere berezia zen, taberna giroaren eraginez. Gainera, diskak grabatu zituzten eta hori, garai hartan, oso gauza garrantzitsua zen". Migel Urteaga iritzi berekoa da. "1957an Joxe Migel Ormazabalek eta lau anaiok diska grabatu genuen, 1958an Sakabi eta Egañazpik grabatu zuten eta, ondoren, 12 bat urtetan ez zuen inork diskorik grabatu".

Herri handietako kaleetan eta tabernetan jotzeari eta euren izaerari esker, Zumarragako Trikitixak sekulako ospea lortu zuen. "Tabernetara joaten ginen eta trikitixa bakarrik jo beharrean, denak girotzeko moduko musika jotzen genuen. Ezkontzetan, afarietan... zer jende zegoen begiratu eta haien arabera musika jotzen genuen. Behin, Legazpiko Eliz-Ondo tabernan, mutil batzuk gu zirikatzen hasi ziren eta ordu eta erdi eman genuen soinua jotzen isildu gabe, beraiek dantzan zeharo nekatu ziren arte", dio Joxe Urteagak.

Tokian-tokiko jendearen arabera jotzen zutenez, gaztelaniaz ere abesten zuten. Hori dela eta, zenbait jendek kritika-

rako elkartu dituen familia

Brinkolako "Fiesta de la juventud": Meza eman zuen frailea Joxe eta Sebereni elkartu zitzaizen.



Kalea giroten ez da Zumarragako Trikitixa baino talde hoberik izan.

tu egin ditu eta horrek Mikel amorrarazten du. "Giro desberdinetan ibili dira, jende desberdinarekin, eta horrek eragin zuen erdaraz ere kantatzea. Inork ez du esaten, erdaraz kantatzen zuten arren, hasiera-hasieratik politika gaiak jorratu dituztela. Hala, zenbait diska ateratzeko arazoak izan zituzten, abestien letra zela eta. Duela 20 bat urte, irrati batzuek ez zituzten Zumarragako Trikitixaren erdarazko abes-

"Izaera berezia dugu: Kaleko eta parrandako giroa bizi izan dugu beti"

tiak jartzen. Beraientzat trikitixa erdaraz abestea sakrilegioa zen, baina guri asko gustatu izan zaigu erdaraz kantatzea. Erdarazko abesti bat polita bada, zergatik ezin da kantatu?". Garikoitz iritzi berekoa da: "rantsxera asko, euskaratzearekin batera, hondatu egin dituzte".

Aipatu bezala, Zumarragako Trikitixak politika gaiak ere jorratu ditu bere abestietan. Hori dela medio, besteak beste, Goardia Zibilek ez zituzten oso begiko. "Behin, Kizkitzan, Goardia Zibil batek pasodoblea jotzeko agindu zigun (Joxe).

Kasurik egin ez nionez, haserretu egin zitzaidan. *Vaya usted a donde aquel señor que está con la sotana y si dice que toque pasodoble, tocaré pasodoble*, esan nion. Ez zen gehiago azaldu!".

Apaipek bazekiten hain arrakasta handia zuen taldearekin ondo konpontzea komeni zitzaiea... Inaziok Antion jendea sueltoan dantzatzeko euren eskutik hasi zela gogoratzen du. "Trikitilariak eliza atzealdean agarrauan jotzen zuten eta parrokoak aurrealdean sueltoan jotzeko eskatu zigun. Garai hartan herriko plazak dantzariak betetzen ziren, goizeko ordubiak arte edo beranduago arte jotzen genuen eta hurrengo goizean, diana. Behin, San Juanetan irten eta Santa Isabeletan itzuli nintzen etxera".

Orduetik hona gauzak asko aldatu dira: erromeriek behera egin zuten eta, zenbait urtetan, gazteek ez zuten estimu handian izan trikitixa. Mikel Alustiza garai hartan irten zen lehenengoz plazara. "Nire garaian gazte batek panderoa jotzea ez zen hain normala. Nire adineko jendea ez zitzaion buruan sartzen euren adineko batek panderoa jotzea, baina, etxean beti hori ikusi nuenez, gustatu egiten zitzaidan eta aurrera jarraitu nuen. Zorionez, orduetik trikitixak gora egin du".

Mikelen ondoren, Garikoitz Lizarragak eta Kepa Urteagak, Joxeren

bilobak eta Migelen semeak, soinua eta panderoa jotzen ikasi zuten. Hauen atzetik ere, ba omen datoz beste batzuk. "Orain arte ez dugu familia tradizioari eusteko arazorik izan eta ez dirudi aurrerantzean arazorik izango dugunik. Orain Kepa, Migel eta hirurok gabiltza (Mikel), Gari ere badator eta Inazioren bi biloba ikasten ari dira".

Egitarau oparoa

Zumarragako Udalak eta herriko trikitizaleek omenaldi egitarau bikaina antolatu dute abenduaren 12rako. Goizean herriko trikitilariak herriko kaleak alaituko dituzte. 12:00etan, Javier Ramosen "Zumarragako Trikitixa eta bere ingurua (1920-2004)" liburua aurkeztuko da Udaletxean. 13:00etan, Antonio Oteizaren "Zumarragako Trikitixaren Omenaldia" eskultura inauguratako da Elizkalen. 14:30etan, berriz, omenaldi-bazkaria izango da. Bukatzeko, 17:30etan, erromeria izango da Elizkalen. Bertan, herriko trikitilariak gain, Lajak, Landakandak, Laja gazteak eta Iturbidek parte hartuko dute. Urretxu-Zumarragako eta inguruko taldeetako dantzariak giroa berotuko dute, herritarrak dantza egitera anima daitezten. Aipatu, bazkarirako txartelak Zumarragako Udaletxean salgai direla 35 eurotan.

Arrastoa utzi due

Zumarragako Trikitixak oso lan garrantzitsua egin duela argi dago. Talde honek trikitixa munduan suposatu duena jakiteko Kepa Junkera, Esteban Larrañaga, Joseba Tapia, Edurne Iturbe, Iñaki Garmendia "Laja" eta Jose Mari Iriondorengana jo dugu eta honako galderak egin dizkiegu:

- 1.-Gogoratzen al duzu noiz eta non entzun zenuen lehenengoz Zumarragako Trikitixa? Zer inpresio jaso zenuen?
- 2.-Beraiekin hartu-emanik izan al duzu?
- 3.-Zein uste duzu izan dela euren ekarpen nagusia?
- 4.-Omenaldia dela eta, zer edo zer esan nahi al diezu?




JOXE MARI IRIONDO, "ZALDIBARKO TRIKITIXA"

- 1.-Joxe Oria zena, mutikoa nintzela, Santa Isabeletan panderoa jotzen entzun nuela gogoratzen dut.
- 2.-Joxe Urteaga eta, nire adin inguruak dira, baina Zaldibarrera 19 urterekin etorri nintzen eta, ezagutu eta entzuten nituen arren, ez nuen hartu eman handirik izan beraiekin. Dena den, Inaziok eta Seberianok inoiz panderoa jo dute nirekin.

- 3.-Zumarragako Trikitixakoak bereziak izan dira, trikitixa desberdina egin dute. Trikitilari klasikoak ezagutu ditut (Gelatxo, Itsasakorta, Sakabi...) eta Zumarragakoek erreperitorio desberdina egin dute. Jotzeko modu desberdina izan dute.

- 4.-Ea tartetxo bat hartu eta abenduaren 12an Zumarragara joaterik dudan. Beraiekin egotea gustatuko litzaidake zoriontzeko.



KEPA JUNKERA

- 1.-Sakabi eta Egañazpirekin atera zuten diskan entzun nuen lehenengoz Zumarragako Trikitixa. Bi taldeen estiloak zein desberdinak ziren deigarria iruditu zitzaidan.

- 2.-Umetan Zumaiara joaten nintzen oporrak pasatzera eta beraiek ere hara joaten ziren. Itzurungo hondartzan eta soziedadere batean topo egiten genuela gogoratzen dut. Eskuko soinua jotzen nuela jakin zuten; musika herrikoia jotzea oso polita zela, baina parranda asko egiten zirela eta kontuz ibiltzeko esan zidaten. Trikitixa jotzen ikasi nuenean beraien piezatakotak batzuk atera nituela oroitzen dut.

- 3.-Errespetu handia diet belaunaldi honetako trikitilariari, benetan gustukoena dira. Rufino, Sakabi, Laja, Auntxa,

Zumarragako Trikitixa... Haiek zuten pasioa ez dut ondorengo belaunaldietako trikitilarietan somatu. Beraiei esker jotzen dugu trikitixa gazteago garenok. Beraien soinuak bultzatu gintuen jotzera, sentipen eta sentsazio transmisio handia egin zuten. Hori dela eta, Elkar argitaletxearentzat "Betiko trikitixa" izeneko diskoa ekoiztu nuenean, Zumarragako Trikitixakoak disko horretan parte hartzera gonbidatu nituen.

- 4.-Omenaldi eguna senitartekoekin eta lagunekin gozatzeko eguna da eta ondo pasa dezatela. Besarkada bat bidali nahi diet eta nire mirespena adierazi.



ESTEBAN LARRAÑAGA

- 1.-Gaztetan Zumarraga aldera gutxi etortzen nintzen. Duela 32 urte entzun nituen lehenengoz zuzenean, Iturbide eta Ahuntxa zirenei egin zitzaizen omenaldian. Orduan ezagutu nituen Joxe eta Migel, baina lehenago Loiola Irratian entzunak nituen; Jose Mari Iriondok egindako grabazioei esker. Lehenengoz entzun nituenean inpresio handia eragin zidaten: alaiak eta biziak ziren eta jotzeko benetan modu ezberdina zuten. Teknika edo kalitate aldeetik ez ziren Lajaren parekoak, baina joaten ziren tokietan giro alaiak sortzen zuten. Inorekin zerikusirik ez zuen zer edo zer zuten. Horregatik iraun dute, euren izaera propioari eutsi diotelako. Bide bat hartu zuten, nire ustez zuzena, eta bide hori

n trikitilari taldea

jarraitu zuten. Ez diote inori kopiatu eta beraiei kopiatzea oso zaila da.

2.-Garai batean egin zitzairen omenaldian antolaketa lanean aritu nintzen eta Iparragirren aurrean lore sorta utzi zutelagogoratzen dut. Oso polita izan zen, niretzat Zumarragako "Iparragirre"-ak izan baitira. Geroztik, Zumarragan izan diren jaialdietan hartu-eman izan dugu eta harreman ona izan dut beti beraiekin.

3.-Joxe ez da txapelketa batera joateko moduko soinu-jolea izan, baina horrek ez du esan nahi soinu-jole handia izan ez denik. Zoritxarrez galtzen ari den kaleko giroa pizten inork baino hobeto zekien. Oraindik ere, mahai baten inguruan jotzen duenean, zer edo zer pizten zait barrenean.

4.-Izugarri pozten nau Zumarragaren izena toki guztietara eraman dutenei omenaldia egin behar zaiela ikusteak. Gure herri honetan jende askok isil-isilik lan egin du eta beste herrietan ere halako omenaldiak egin beharko lirateke. Lan hauetan gehiagotan ez aritzea erabakita nuen, baina omenduak zeintzuk diren jakinda, oso gustura aritu naiz lanean.

oso ezaguna izan dut betidanik. Oso deigarriak ziren. Umore handikoak ziruditen. Festa eta giro sortzaile abilak.

2.-Bai noski. Joxek soldaduska gure osaba Eleuteriorekin egin zuen Lizarran eta ezagupena aspaldikoa izan da gure familian. Gero trikitixa elkartean ere oso aktibo lan egindakoak ditugu Oriatarrak. Garai batean Zumarragan bertan, beraien lokalean, egiten zituzten elkarteko bilerak eta ni ere osabarekin bertaratzen nintzen eta haiekin tratu beroa izaten zen beti. Gerora ere elkartu izan garenetan beti egon da sekulako konplizidadea.

3.-Beste eskola bat izan dute Zumarragakoek. Estilo aldetik batez ere. Jotzeko modua askoz tensoagoa eta biziagoa. Soinuari beste hots bat atera izan dio Joxek; lenguetak irrintzi batean eta mugimendua gorputz osoan. Kantatzeko ere gustu handikoak eta oso tonalitate altuetan erraz moldatzen direnak.

ikusten zaie, gainera. Lehengoan, geltoki ondotik pasa eta Joxe entzun nuen jotzen: plazak utzi dituen arren, trikitixa benetan gustuko duela erakusten du horrek.

4.-Goza dezatela omenaldi egunaz, ondo merezita dute eta, eta jarrai dezatela jotzen. Ni ere omenaldi eguneko goizeko kalejiran zein arratsaldeko jaialdian arituko naiz, gustura asko gainera.

Argazkia: EHTE.



Argazkia: EHTE.



EDURNE ITURBE

1.-Txikitatik entzun dut Zumarragako trikitixa: etxean, Santa Isabeletan eta erromerietan. Garai hartan asko jotzen zuten eta *gozada* zen jende guztia beraiekin dantza egiten ikustea. Orain hori galdu egin da.

3.-Erromeri giro hori sortzeko duten ahalmena da, hain zuzen ere, euren ekarpen nagusia. Jotzen dutenean gustura ari direla

IÑAKI GARMENDIA, "LAJA"

1.-Oso gaztea nintzela, gurasoekin Zumarragara joan nintzen eta kalean jotzen ikusi nituen. Joxeren soinua probatu nuela gogoratzen dut, gero lapurtu zioten soinua. Trikitixa kalean jotzen zuten eta kalean jotzen zutenek jarraitzaile asko izaten zituzten. Gainera, giroa jartzen apartak ziren eta abesti oso onak zituzten, hori oso garrantzitsua da.

2.-Zumarragako Trikitixa osatu duten nire garaiko guztiekin izan dut harremana: askotan elkartzen ginen eta azken diskoa euren ilobarekin, Mikelekin, atera nuen.

3.-Zumarragako Trikitixa urte askotako lanaren emaitza da. Jende guztiak ez ditu ezagutuko, baina oso ezagunak dira. Kategoria izan dute. Askotan gertatu izan zaigu erdaldunek gu ikusi eta "*¿ya sabes tocar trikitixa de Zumarraga?*" galdetzea.

4.-Abenduaren 12an Zumarragan izango gara jotzen eta hor bertan emango dizkiet zorionak.

Argazkia: EHTE.



JOSEBA TAPIA

1.-Nik umetatik trikitixa entzuten nuen edonon: etxean, irratan, herriko festetan, familiakoetan,... Zumarragako trikitixa ere garai horretan entzun izango nuen lehendabizikoz ziurrenik, zeren jotzeko modu berezi hori eta kantatzeko zuten grazia hori

Javier Ramos: "Ez dago ha

Ramosek Zumarragako



Santa Lutzi bezperako omenaldi ekitaldien barne, 12:00etan, "Zumarragako Trikitrixa eta bere ingurua (1920-2004)" liburua aurkeztuko da Zumarragako Udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Liburu hau Javier Ramos akordeoilari, irakasle eta kazetari urretxuarrak idatzi du eta bertan Zumarragako Trikitixaren historia eta eskusoinua penintsulan nola sartu zen azaltzen da.

Noiz hasi zinen liburuaren kontuarekin?

Mikel Alustizarekin kalean topatzen nintzen bakoitzean egunen batean eurei buruzko liburua idatzi behar nuela esaten nion. "Acordeón Siglo XXI" aldizkaria egiteari utzi nionean, 2001ean, liburua prestatzen hasi nintzen. Lehen elkarrizketa Jakari egin nion eta berak herria zenbat maite duen ikusteak indar handia eman zidan. Jakak berak Antonio Pradarengana joateko esan zidan eta honek astindu handia eman zion nire lanari. Izan ere, halako lanak egiten ohitua dago. Asko ikasi dut berarekin. Pradak, lana interesgarria zela ikusirik, alkateari erakutsi zion eta honek liburua aurrera ateratzeko baliabide guztiak nire esku jarri ditu. Hori dela eta, Anton Arbuluri eta Zumarragako Udalari nire esker ona azaldu nahi diet.

Zumarragako Trikitixak liburu bat, eta gehiago, merezi du...

Txikitatik akordeoiarekin harreman estua izan dut: Maite Janeiroekin akordeoia ikasten hasi nintzen, Enrike Zelaiaren grabazioak entzuten nituen eta, gainontzeko urretxuar eta zumarratarrek bezala, Zumarragako Trikitixa entzuten nuen. Urretxu edo Zumarragako izanez gero, ezinezkoa da Zumarragako Trikitixaren soinua ez ezagutzea. Izan ere, festa eta ekitaldi

guztietan parte hartzen dute. Niretzat akordeoiarekin eta herriarekin lotua dagoen zer edo zer egitea oso pozgarria izan da. Norbaitek idatzi behar zuen liburu hau.

Zumarragako Trikitixaren historia hasiera-hasieratik aztertu duzu. Nola hasi ziren?

Kasualitatez. Jakak ikertutakoaren arabera, 1920ko San Juan gauean "Kanpanzar" soinu-jolea etorri zen eta Joxe Oria panderoarekin laguntzen hasi zitzaion. Ondoren, beste askok jo zuten akordeoia Joxerekin. 50eko hamarkadatik aurrera, guztiok ezagutzen ditugun Joxe eta Migel Urteaga hasi ziren. Zumarragako Trikitixa hasi zenerako beste trikitixa talde batzuk bazeuden, baina ez dago hainbeste urtetan bizi-rik iraun duen talderik. Izan ere, 80 urte baino gehiago baitaramatzate jotzen. Trikitixaren difusioaren epizentroa dira. Bestalde, Joxe Urteaga oso garrantzitsua izan da jotzeko moduagatik. Joxe eta Migel ez dira oso teknikoak izango, baina jendea animatzen eta ikuslegoarekin bat egiten apartak izan dira. Nortasun handikoak dira eta euren lana erakargarri, interesgarri eta errespetagarri egiten jakin zuten.

Argi dago trikitixa maite dutela...

Askotan ezeren truke lan egin dute eta sekulako astakeriak

“nbeste iraun duen talderik”

trikitixaren historiari buruzko liburua idatzi du

egin dituzte. Elurpean Antzuolara oinez jaitsi, goizeko ordubiak arte jo eta seietan jaiki baserri guztietan jotzeko, esaterako. Joxe Urteagak esaten duen moduan, egun inork ez luke halakorik egingo. Lehen beste era batean bizi eta dibertitzen zen jendea eta Euskal Herriak izan duen bizi-modu aldaketa ondo pasatzeko moduan ere nabaritu da.

Garai hartan trikitixa izugarri garrantzitsua zen, beraz...

Garai bateko Euskal Herriko festen ardatza trikitilari taldeak ziren, haiekin pasatzen zuen ondo jendeak. Erromerietan talde bakoitzak bere tokia zuen eta jendeak ordaindu egiten zuen trikitilari baten soinurekin edo bestearenarekin dantza egiteko. Baina akordeoia Europa osoan jotzen zen eta mundu marjinallean, batez ere, sekulako arrakasta zuen.

Lan honi esker, Zumarragako Trikitixakoak primeran ezagutzeko aukera izan duzu. Zer esango zenuke beraietaz?

Eskuzabaltasun osoz musikaren eta herriaren alde gauza asko egin dituzte. Zumarragak asko zor die, beraien eskutik jende askok primeran pasatzeko aukera izan baitu. Bestalde, oso jende ona da. Oso erraza izan da beraiekin lan egitea eta Mikelek izugarri lagundu dit Zumarragako Trikitixan aritutako jendearekin harremanetan jartzen.

Akordeoia Euskal Herrira nola iritsi zen ere aztertu duzu. Ez al zegoen argi bada trenbidea egiten lan egitera etorri ziren italiarrek ekarri zutela?

Azken urteotan akordeoia Euskal Herrira eta Espainiara nola sartu zen ikeritzen aritu naiz eta datu zaharrenarekin topo egin dut. Akordeoia Parisetik heldu zen Madrilera eta ikusmin handia sortu zuen. Trenbidea egitera etorri ziren italiarrek akordeoizaleatasuna handitu zutela egia da,



Orrialdeak: 124.

Euskarazko itzulpena: Koldo Larrañaga.

Maketazioa: Jose Mari Aleman Amundarain.

Hiru atal: Zumarragako historia laburra, akordeoiaren historia eta Zumarragako Trikitixaren historia.

ez, ordea, instrumentua beraiek ekarri zutela. Italiarrak etorri baino 20 urte lehenago akordeoia ezaguna zen jada. Akordeoia 1829an asmatu zen eta 1930ean jada erruz fabrikatzen hasi ziren. Madril eta Paris arteko harreman komertziala oso ona zenez, Madrilera berehala heldu zela argi dago. 1841ean Madrilgo erakusketa batean akordeoi bat aurkeztu zela dion agiria topatu dut, esaterako. Euskal Herriko trikitiaren historiari asko idatzi da, baina azaletik soilik ikertu da.

Akordeoiaz hitz egiten duzunean, akordeoiaz eta soinu txikiak ari al zara?

Garai batean ez ziren trikitia eta akordeoia bereizten. 1900. urte inguruan akordeoiaren bilakaera hasi zen eta bi mota sortu ziren: alde batetik akordeoia eta bestetik akordeoi diatonikoa. Akordeoi diatonikoa eboluzionatu ez zuen akordeoia dela esan ohi dut. Akordeoi diatonikoaren botoi bati ematen diozunean, hauspoa irekitzean, soinu bat ateratzen da eta ixtean beste bat.

Horrek musikariari asko zailtzen dio lana. Hori dela eta, ixtean eta irekitzean soinu bera ateratzean, lengueta sistema bikoitza jarri zuten. Zumarragako Trikitixa akordeoi handiarekin hasi zen, baina kalean gora eta behera jotzeko askoz ere erosoagoa da akordeoi diatonikoa. Dena den, trikitixan, instrumentua bera baino garrantzitsuagoa formazio mota da: eskusoinua panderoarekin.

Lan hau egiten ari zinela bitxikeriak ere aterako ziren...

Solasaldietan pertsona askori buruz hitz egin genuen, tartean "Cara al sol" konposatu zuen Juan Telleria zegamarraz. Telleriak Zumarragako Trikitixako kidea izan zen Jose Migel Ormazabalekin ikasi zuen musika eta Ormazabalek bere seme-alabei pertsona eta musikari bikaina zela esan zien. Musikari handia zenez, Madrilera joan zen eta, ezinbestean, Falangeko jendearekin harremanetan egin zuen. Madrilen bizi diren bere alabek esan zidatenez, bere asmoa ez zen izan Falangearen ereserkia konposatzea. Doinu bat sortu zuen eta hari, ondoren, letra jarri zioten.

Beste libururen bat kaleratzeko asmorik ba al duzu?

Dagoeneko bigarren liburua idazten ari naiz: Enrike Zelaiari buruzkoa. Altsasun duen tabernan elkarrizketa mordoa egin dizkiot eta lagunak gara jada. Zelaiak kontzertu asko eskaini ditu Hegoamerikan eta Euskal Herriko musikaren hedatzaile garrantzitsua izan da. Musika klasikoa uztea erabaki ondorengo lehen kontzertua, lehen euskal musika kontzertua, Zumarragan eskaini zuen 1971n. Zelaiak sinboloa izan zen eta garai hartan Segura Irratian ia ez zen beste ezer entzuten. Berak dion moduan, garai hartan "40 principales" egon izan balitz, urteak eman izango zituen lehen postuan "Jota vasca Nº 1" eta "Jota Vasca Nº 2"-ekin.



Ibon Garmendia

Euskeraren aritik

Lengo baten Andoni Egaña, Kike Amunarriz ta Joxerra Gartzia irukotea ikusi nitun telebista saio baten euskeraren kalitateari buruz izketan ta orain alako ikerketa sakon ta plan iraultzaile bat egin omen dute kantitatea albo batera utzi ta pixkat izkera zaintzeko. Orren aritik ta emen idazteko eskeintza onartu ta gero esateko ditudan gauza batzuk botako ditut.

Egia esan Zumarra ta Urretxun euskeraren kalitateari begira jarri bear degu kantitatearen arazoa (ta erabilerarena ze esanik ez) superatua baitaukagu, pentsa garai batean Urretxuko sarreretan seinale bat gendukan zera zioena: Erne! Urretxun ere euskeraz. Orain urte batzuk kendu egin zituzten itxuraz ez baitago orrelakoen bearrik ta inportanteagoa da emen Iparragirre jaio zala adieraztea. Zumarrara trenez datorrenak ere argi dauka nora datorren Zumárraga azaltzen baita, ori Londresera jundakoan Londres irakurtzea bezela da jatorrizko Londonen orde, detaile argia.

Erriotan danok gera euskeraren aldekoak, bestela galdetu erritarrei banan banan ta ea zeinek esaten duen aurka dagoela. Egon, danok gare euskeraren alde, talde kulturalak, kirol taldeak, lantegiak ta batipat politikariak auteskunde garaian, au da, mundu guztia dago euskeraren alde. Egin, ordea, euskeraren alde egiten dutenak gutxiago ote diren errezeloa dauket.

Zenbat diskurso bota dizkiogu kanpotarra dan lagunen bati Europako izkuntzarik zaarrenaren jabe gerala esplikatuz, nola euskeraren alde kilometroak egiten ditugun bai oinez baita korrikan ere, nola makina bat karroza egin ditugun erriko festetan, nola frankismoan galerazita egon zan euskeraz itz egitea, nola gure soldataren euneko bat (batzui geiago ta beste batzui gutxiago) euskeraren alde juten zaigun urtero, nola jendeak boluntarioki dirua ematen duen euskerazko alako aldizkari edota egunkari sortzeko, nola erritar anonimoek garai zailetan sortu zituzten ikastolak ta euskaltegiak...

Egia esan asko maite degu gure izkuntza ta

euskeraren maitale amorratuak gera asko ta asko. Mesedez orain irakurtzen ari zeran orrek jaso besoa Europako izkuntzarik zaarrenetakoa maite baduzu. Ta orain jeitsi besoa izkuntza orri egunero adarrak jartzen ez dizkion irakurle orrek. Ez dakit zein izango dan inkestatxo onen emaitza baina ez zait iruditzen okertuko naizenik euskaldunak maitale txarrak gerala ondorioztatuko banu. Agian joku onekin ta besoaren nekez baten bat euskeraz itz egiten asiko da denbora batez, baina agian ez.

Badira txakurrei, umeei, tabernariei ta ertzainei euskeraz egiten dienik ta dagoeneko kezkatzen asia nago ez bainaiz ez tabernari ezta ertzaina ere. Orduan neregana euskeraz itz egiten badatoz zer naukate, umetzat edo txakurtzat? Ez dakit ze pentsatu...

Tristura ematen dit desagertzen ari dan figura batek, au da, euskaldun berriaren figurak. Ezagutzen al dezue aspaldi onetan euskeraz ikastea erabaki duen norbait?

Badakigu gaur egun gaztediaren geiengoak eskolan ikasten duela baina badira oraindik tutik ulertzen ez dutenak kalean ta bearrik sentitzen ez dutenak. Bada eszepzio txiki bat, erdaldun bat lendakarigai aukeratzen badute automatikoki di-da batean, ikasten du, orregatik interesgarria litzake alderdi bakoitzak lau urtez bein autagaia aldatzea orrek jendea euskeraz ikastera bultzatzen edo beartzen badu.

Konturatuko zinatenez beingoagatik euskera ulergarri baten idaztea pentsatu det beste plastikozko batu ori ez baitigute gure elduek errex ulertzen. Auetxei ere zera esango nieke, euskaldun berri batek euskeraz itz egiteko egin duen aaleginaren laurdena egin izan bazenute euskeraz irakurri ta idazten ikaste-ko ez zenuketela arazorik izango ez Otamotz, ez Hitza ta ez Berrian dakarrena aixa ulertzeko.

Oarra: Ba ote da erriren bat bere izkuntzari buruz ainbeste idatzi, filosofatu, aztertu eta itz egiten duenik? Erantzunak Otamotz-era bidali.

ZENBAT BURU HAINBAT ABURU

**Badator Santa Lutzi feria...
Nola igarotzen duzu eguna?
Zer edo zer aldatuko al zenuke?**



Rosario Zaldua

Zumarragako jendearentzat egun handia da. Familia osoa kalera irteten gara, inor ez da etxean gelditzen. Urtero lan egiten dugu, baina dena ikusteko eta zerbait erosteko tartea hartzen dugu. Inguruan feria hoberik ez dagoela uste dut. Eguraldiak laguntzen badu, askoz hobea.



Rosarito Mendizabal

Feria bera asko gustatzen zait. Lehenengo buelta ganadu inguruan ematen dugu eta gero plazan dauden fruituak ikustera jaisten gara. Egurdian, etxean, bazkari berezia egiten dugu. Abenduaren 13ko arratsaldea motza eta hotza da, baina kaleko giroa animatzeko ahalegina egin beharko litzatekeela uste dut.



Jacinto Tejedor

Urretxu-Zumarragan urteko egunik handiena dela uste dut. Goizean-goiz esnatu, haurrak baserritarrez jantzi, feria ikusi, pote batzuk hartu eta soziedadean elkartzen gara babarrun-jana egiteko. Egitaraua ondo dagoela uste dut, baina hegoamerikarren postu gehiegi daudela uste dut. Beraientzat beste azoka bat antolatuta beharko litzateke.



Rosa eta Irene Askasibar

Ilusioz hartzen dugu eta barazki azoka gustatzen zaigu gehien. Kanpoan lan egiten dudanez asteburua tokatzen denean soilik etortzen naiz (Irene). Lagunekin elkartzen gara eta bueltatxo eman eta gero, etxean bazkari berezia egiten dugu. Urteen poderioz feriak hobera egin duela uste dut (Rosa).

Montajes e Instalaciones Electricas
HERCE
Electricistas M. E.

Muntaia eta instalakuntza elektrikoak
Enpresa mantenua
Argiteria publikoa

Denda: Ipeñarrieta 4, ☎ 943 72 09 50
Tailerra: Mugitegi, ☎ 943 72 42 66
Mugikorra: 656 703 392

20700 URRETXU

TABERNA

Belarzoim
JATETXEA

Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19
ZUMARRAGA

belarzoim

Belardenda, dieta eta errejimen elikadura
Mediku-homeopata kontsulta
Labeaga, 30 - Urretxu - ☎ 943 72 27 80

PAKO VIERBUCHER

Ezkontza erreportajeak
Argazki estudio eta artxiboa
Prozesu digitalak
Bideo profesionala
Argazkigintza materiala

Legazpi, 5 - ☎ 72 11 55 - Zumarraga

BIONA

AROTEGIA

Altzariak neurritara

☎ eta faxa: 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU

ETXABURU
merenda-lekua



Santa Barbara bidea - ☎ 943 72 22 77 - URRETXU

KK in'zona, Gaztelekuk

2004ko hau benetan urte garrantzitsua izaten ari da herri mailako prentsari dagokionez: *Goierriko Hitza* sortu da, *Otamotzek* 100. alea kaleratu du, *Kaixok* 25 urte bete ditu... eta hori gutxi balitz, Gaztelekun *KK in'zona* fanzinea plazaratzeari ekin diote. Gazteleku zaharreko *El piojo rojo* aldizkariaren lekukoa hartu duen fanzine honi buruz hitz egiteko, Gazte Asanbladako Jon Ander Moratinos eta Ander Kerejetarekin izan gara.



KK in'zona aldizkariako "majadero kontseiluko" kideetako batzuk.

Moratinos eta Kerejetak esan digutenz, Gazte Asanbladakoek aspalditik zuten fanzinea kaleratzeko asmoa. "Aspaldi hasi ginen kontu honekin, baina obra bukatu eta ordenadoreak hemen izan arte ezingo genuela ezer egin uste genuen. Alex Albisua, ordea, ordenadore portatila duenez eta maketatzen dakienez, animatu egin zen. Ostiraletan bilerak egiten hasi eta lehen alea kaleratzea lortu genuen. Harrera ona izan zuen eta bigarren alea egiten 13 lagunek parte hartu genuen jada, denak mutilak zoritxarrez. Geroz eta jende gehiago parte hartzen ari da. Hirugarren alean 17-18 lagunek parte hartu dugu. Behin idazten duenak errepikatu egiten du".

Fanzine berria hartu eta irakurlearen arreta pizten duen lehena izena bera da: *KK in'zona*. "Hiru edo lau bilera generamatzan izenarekin bueltaka eta, azkenean, hau aukeratu genuen futbol talde baten izenean oinarriturik. Gainera, izenondoa jartzeko aukera eskaintzen du. Lehen alean *kaka intzona kultur aldizkari gastronomikoa* jarri genuen, bigarrenean *in the middle of street*, hirugarrenean *udaletzeko ata-*

rian... Izen orijinala iruditu zitzaigun eta lanak firmatzeko orduan ere erabiltzen dugu: *kktua, kkantzer, kklardo*...".

Beraiek izenaren inguruan parre batzuk egin dituzten bezala, irakurleek ere ondo pasatzea nahi dute Gazte Asanbladakoek. "Jendeak aldizkaria iraku-

“Jendeari aldizkarian parte hartzeko gogoia piztea gustatuko litzaike”

rriz ondo pasatzearekin nahikoa dugu. Dena den, jendeari aldizkarian parte hartzeko gogoia piztea ere gustatuko litzaike. Aldizkariak ez du zentsurarik izango eta edozein koloretako kolaborazioak onartuko dira. Gaztetxean ibiltzen ez den jen-

deak ere parte hartzen du. Gaztetxetik ateratako fanzinea da, baina guztiei irekia dago. Herriko talde batzuei aldizkarian parte hartzeko gonbitea luzatu diegu".

Guztiei irekitako aldizkaria izanik, denetik aurki dezakegu *KK in'zona* fanzinean. "Denetik dago, bakoitzaren *pedradak*: poesiak, komikiak, etxebizitzaren arazoari buruzko erreportajeak, kritika soziala, Gazte Asanbladak bere tartetxoia du bere ekitaldiak iragartzeko, Abiadura Handiko Trenari buruzko bertsoak, denborapasak... atera ditugu orain arte. Umorea zein gai serioak jorratuko ditugu. Oraingoan, atal finkoak agenda, denborapasak eta kaleko galdera dira".

Hainbeste kolaboratzaileekin, koordinazio lana oso garrantzitsua da. "Hilean behin bilerak egiten ditugu. Lanak Gaztelekun bertan utzi edo Alexi ematen dizkiogu eta honek, Haritz Ormazabalekin batera, maketazioa egiten du. Hurrengo bileran, ordenadore portatila ekartzen dute egin dutena erakusteko eta aldaketak egin behar badira, guztion artean erabakitzen

o fanzine berria

dugu. Gure funtzionamendua asanblearioa da guztiz eta guztion artean erabakitzen dugu zer sartu eta nola. Ea etorkizunean 18k parte hartu beharrean 25ek parte hartzen dugun eta lanez gainezka gauden. Ezin gara kexatu, aldizkariak geroz eta orrialde gehiago baititu eta oso harrera ona izan baitu".

Oraindik fanzinea eskuartearen izan ez duzenok, jakin Fox, Florida, Ekaitza, Aldiri eta Alaska tabernetan eta Gaztelekun bertan, noski, eros daitekeela. Lehen bi aleak salgai daude oraindik. "Lehen zenbakia aleko euro batean dago salgai, guri aleko euro eta sei xentimo kostatzen zitzaien arren. Sei xentimoak Gazte Asanbladak jarri ditu. Bigarren alea ateratzeko ere botea genuen, baina lapurrak sartu eta dirua eraman zuten. Hori dela eta, bigarrena euro eta hogeita xentimotan saldu genuen. Asmoa ez da dirua ateratzea, autofinantziatzea baizik. Dirurik aterako bagenu, aldizkaria Gaztelekun bertan egiteko erabiliko genuke".

Jon Ander eta Ander nahiko gustura daude orain arteko salmentekin. "Oraindik propaganda lan handia dugu egiteko, baina lehen bi zenbakien ale ia guztiak saldu dira. Etxekoei gustatu zaie eta Aldirin gazteak ez diren askok erosi zuten".

Hirugarren alea aste honetan bertan kaleratu dute eta 1,5 eurotan eskura daiteke aipatutako tabernetan eta Gaztelekun. Salneurria igo bada, orrialde kopuruak ere gora egin duelako izan da. Hirugarren ale honetan Abiadura Handiko Trenari eta Txetxenari buruzko artikulua, Gaztelekuan izan zen mintegiaren ondorioak, ipuin erotikoren bat eta jendearen iritzia aurki ditzakegu, besteak beste.

Eta laugarren alea noizko? *KK in'zonak* ez du aldizkotasun finkorik izango. "Inongo loturarik ez dugunez, aldizkaria nahi dugunean nahi dugun prezioan kaleratu dezakegu. Gure erritmora lan egin behar dugu eta jendearen inplikazioaren arabera izango da aldizkariaren etorkizuna. Salmentak ez zaizkigu gehiegi inporta,

baina jendeak erosteak ilusioa egiten du. Propaganda kontua landu nahi dugu, kalean jendea aleak banatu...".

Gazteleku zaharrean *El Piojo Rojo* kaleratzen zutenetako askok ere *KK in'zona* irakurri dute dagoeneko eta gustatu omen zaie. "Gazteleku zaharrekoak ez dira askotan etortzen gurera, baina etorri direnek fanzinea ateratzea oso ondo iruditzen zaiela esan digute. *KK in'zonak El Piojo Rojo*ren ildo jarraitzen du: komikiak, kolaborazioak... Hori dela eta, portadan *berpizkundeko* 1., 2., ... alea jartzen dugu. Gazteleku zaharrekoek *El piojo rojo*ren aleak ekarri dizkigute eta gurean aldizkari hartako gauzak sartuko ditugu. Fanzineak eta beraietan dabilen jendea ez da bera, baina honek hari segida ematen dio".



KK in'ZONA
UDALETXKO ATARIN
3. alea 2004-ko azaroa 1.50 euro

GAZTELEKUN AURRERA

Aldizkaria: KK in'zona.
Zenbakia: 3garrena.
Orrialdeak: 38 orrialde.
Tirada: 200 ale.
Gaiak: AHT, Txetxenia, Gaztelekuko mintegia.
Argitaratzailea: Gazte Asanblada.
Salneurria: 1,50 euro.
Salgai: Fox, Florida, Ekaitza, Aldiri eta Alaska tabernetan eta Gaztelekun.



HARATEGIA URDAITEGIA
☎ 943 72 00 61
Leturiatarren enparantza, 2
ZUMARRAGA



Keros Enmarkatzeak
Arte ederrak
Dekorazioa
Opariak
Labeaga, 35 Urretxu ☎ 72 41 61

PLAZAOLA
ITURGINTZA
Bide-Zar 5 ZUMARRAGA
943 72 13 70

Herri Aldizkaria
Otamotz
aldizkarian publizitatea sartu nahi baduzu, deitu 943 03 64 74 telefonora.
Merkea eta ona!



UROLA
ELEKTRATRESNAK
☎ 943 72 02 15 - Faxe 943 72 52 91
Secundino Esnaola 2, ZUMARRAGA

Bidea argituko dion seinalearen zain

Garai batean zeharo arrunta bazen ere, oso gutxi dira egun seminariora ikasketak egitera jotzen duten gazteak. Hala, aurten bost gazte besterik ez dira ari Donostiako apaizgaitegian ikasten. Hauetako bat, zumarratarra dugu: Ander Gabirondo. Anderrek urte asko daramatza Zumarragako parrokiari laguntzen eta aurten apaizgaitegiko sarrera ikasturtea egitea erabaki du. Hartutako erabakiaz eta gazteek erlijioaz duten ikuspuntuaz hitz egiten izan gara berarekin.

Eliza barruko zein lanetan aritu zara orain arte?

Jaunartzea egin eta urtebetera edo hasi nintzen elizan. Amonak monagilo joateko esan zidan eta inongo arazorik gabe joan nintzen. Poliki-poliki geroz eta harreman estuagoa izaten hasi nintzen apaizarekin eta sakristauarekin, geroz eta ardura handiagoak hartzen hasi nintzen eta erlijio kontuez interesatzen hasi nintzen. Beti edozer lan egiteko prest izan naiz. Aurten konfirmazioko talde bat hartzea eskaini didate eta horretan nabil. Gazteentzat klaseak beste gazte batekin izatea askoz ere probetxugarriagoa dela uste dut. Ea harreman estua lortzen dugun, horrelako gaiez hitz egiteko

askoz ere hobea baita. Mezak prestatzen, elektrizitate konponketak egiten... ere ibiltzen naiz.

Nolatan erabaki duzu seminariora joatea?

Hainbeste urte eliza munduan ibilita, nahi edo ez, erlijio mundu horrekiko jakinmina piztea normala da. Elektrizitate moduloa egin nuen, udan lanean aritu nintzen... baina froga egiteko eta zalantzak argitzeko momentu ona zela pentsatu nuen. Luis Mari apaizak ere momentu ona zela pentsatzen zuen eta seminarioko errektorearekin harremanetan jarri nintzen. Seminariokoak bokazioaren inguruko hitzaldiak ematera etorriak ziren, baina inork ez nau behartu eta joateko erabakia nirea izan da.

Zer aurkitu duzu bertan?

Sarrera ikasturtea egiten ari naiz, ofizialki ez naiz seminarista. Astea Donostiako seminarioan dagoen Erlijio Zientzietako Pio XXII institutuan ematen dut. Klasean 15 bat lagun gaude, baina gehienak DEI titulua atera nahi duten irakasleak dira. DEI Konferentzia Episkopalek erlijio klaseak emateko ematen duen titulua da. Nire klasekideak ez dira ni bezala seminarioan bizi eta klaseak ez dira espreski apaizgaiantzat. Erlijio Zientzien diplomaturako lehen urtea egiten ari naiz. Ikasgai dexente ditugu (teologia fundamentalak, filosofiara sarrera, etika filosofikoa eta teologikoa, erlijioaren fenomenologia, erlijioaren historia...) eta bada-go zer aztertu. Ez dakit zergatik egin behar zaion uko orain arte gure bizitzan present egon den gauza bati. Elizak berak gauza txarrak eta onak baditu, baina erlijioa bera gauza mamitsua da.

Gustura al zabilta?

Bai, nahiz eta galdu samar nabilen oraindik. Ez naiz oso ikasketa zalea izan eta, gainera, elektrizitate mundutik zientzia humanistikoetara salto handia dago. Ea jartzen naizen eta zer nahi dudana eta zer ez argitzen dudana. Beti elizan ibili naiz eta nahi edo ez galderak sortu zaizkit. Galdera horien erantzuna bilatzeko modu polita iruditzen zait. Aurrerago ikusiko da apaizgai bezala sartzen naizen seminarioan bertan. Aurtengo helburua ideiak argitzea eta alde

honetatik edo beste batetik jarraitu nahi dudana erabakitzea da. Apaizgai izan nahi dudana erabaki behar dut eta uko egingo banio, Erlijio Zientzietako diplomatura amaitu edo enpresa mundura itzuli erabaki beharko nuke.

Apaizgai asko al daude Donostiako seminarioan?

Orain bost lagun gaude Donostiako seminarioan bizitzen, baina gainontzeko lauak azken urteetan dira jada. Hori dela eta, inor etorriko ez balitz, bakarrik geldituko nintzateke. Bost lagunok formadorea dugu, oso pentsakera zabaleko apaiza. Berak asko laguntzen digu, zalan-tza asko sortzen baitira bertan. Izan ere, bizitza nahiko aldatzen zaizu, gauza askori uko egin behar diozu... Dena den, ni orain-

“Apaiz ona izateko gai izateak kezkatzen nau gehien”

dik ez nago seminarista bezala eta ez diot ezkerri uko egin behar. Mundu hori pixka bat ezagutzeko bizi naiz seminaristekin. Jarraitzea erabakiko banu, beste sei urtez jarraitu beharko nuke: bost bertan ikasten eta seigarrena pastoral urtea. Ondoren ordenazioa ematen da.

Zer moduz seminaristekin?

Oso ondo. Oso jatorrak dira. Adin aldetik salto handi samarra dago, beraietako gazteenak 24 urte baititu eta nik, berriz, 20. Dena den, edozein gaiez lasai asko hitz egin daiteke beraiekin eta oso ondo hartu naute bertan. Pentsamoldea aldatzen ari dela ikusten da eta erlijioari buruzko beste ikuspuntu bat dute. Eliza jasaten ari den krisia probetxugarria izan daiteke.

Zer nolakoa da bertako bizitza?

Goizetan seminarioan bizi garen bostok meza izaten dugu. Ondoren, gosaldia, egunkaria irakurri eta klaseko lanak egiten ditut. Eguraldi ona egiten badu, bazkalaurretik Donostiara jaisten naiz pasia-

tzera eta han ikasten duten lagunekin egotera. Arratsaldean, telebista pixka bat ikusi ondoren, klasera joaten naiz; 17:30etatik 20:30etara. Klaseen ostean bezperak errezatzen ditugu edo meditazio apur bat egiten dugu. 21:00etan afaldu eta 23:30ak aldera ohera joaten naiz.

Nola hartu dute familiakoek eta lagunek zure erabakia?

Ondo. Alde horretatik zortea izan dut. Gurasoek oso ondo hartu dute, nahiz eta ez diren eliza munduan asko ibiltzen. Une oro euren babesa izan dut eta neronek hartutako erabakia bada aurrera egiteko eta froga egitea ondo etorriko zaidala esan didate. Lagunek ere nahiko ondo hartu dute. Txantxaren bat jasan behar izan dut, baina froga egitera animatu naute. Herrian apaiz joan naizela komentatu da, baina lagunek badakite zehazki zertan ari naizen. Gustura nabil, inork ez baitit ezer esan tonu txarrean. Lagunek buruan *fallotxoren* bat dutela esaten didate eta ez dut guztiz ukatzen.

Luis Mari Segurola parrokoa poztuko zen...

Noski poztu dela! Beti esan izan dit, seminarioan ikusten ninduela. Nire erabakia jakinarazi nionean asko poztu zen eta asko animatu ninduen. Bera ere, ni bezala, bere gazte garaian oso parrandazalea zela esaten du.

Hemendik urte batzuetara zeure burua apaiz ikusten al duzu? Gauza askori uko egin beharko zenioke...

Hainbeste gauzatan ikusten dut neure burua... Ikusi ikusten dut, baina baita neska batekin hasita familia bat osatzen ere eta lantegi batean edo bulego batean lanean. Uko egin beharreko gauzei dagokionez, edozein lanetan hastearekin batera baldintzatzen duzu zeure burua. Apaiz egitearekin batera ere gauza askori uko egin behar diozu, besteak beste zelibatoa dela eta. Neure bizitza bakardade horretan sartuta ikusteak beldur handia ematen dit. Ez dakit fedearen laguntza soilaz bakarrik bizitzeko gai izango nintzatekeen. Parrokia batean lan egitea oso polita da, familia handi bat baita, baina besteak bere etxera joaten dira bere familiarekin egotera eta apaiza berera joaten da bakarrik egotera. Dena den, ez da

ELKARRIZKETA

hori erabakia hartzeko orduan pisurik handiena izango duena. Gainera, elizan hemendik urte batzuetara sekulako aldaketa emango dela uste dut. Ez dakit zelibato kontua aldatuko den, baina krisi baten ondoren gauzak aldatu egiten dira beti.

Zer da, orduan, erabakia hartzeko orduan gehien kezkatzen zaituena?

Apaiz ona izateko gai izateak edo ez izateak kezkatzen nau gehien. Askotan zer motatako apaiza izango nintzatekeen eta parrokia baten buru izateko ahalmena izango nukeen galdetzen diot neure buruari. Apaiz izateak asetuko nindukeela argi dut, apaiz lana oso aberasga-

kia baitzen. Beste metodologia bat eramango da, hainbeste protokolo eta liturgia desberdin alde batera utzita.


Jendea elizara hurbiltzeko ahalegina ere egin beharko da...

Ez dut uste elizak inor bere ondora erakartzeko ahaleginik egin behar duenik, bakoitzak ikusi behar du zer egin eta zer ez egin. Dena den, jendeak eliza gauza itxia bezala ikusten du eta elizak atek zabaldu beharko lituzke. Bigarren mailako hainbat gauza alde batera utzi eta bere eginbeharrean zentratu. Jendeak apezpiku-batzarrak antisorgailuei buruz eta esaten dituen ematen die garrantzia, baina elizaren eginbeharra ebanjelioaren


da. Eliza barruan ere zatiketak daude. Batzuk oso ortodoxoak dira eta elizaren legeak dioena besterik ez dute ikusten. Eskerrak askoz ere mentalidade zabala goa duen jendea ere badagoen. Legeak hor daude, baina horiek ere betetzeko eta ez betetzeko daude. Eliza ofizialak bere iritziak ematen ditu, baina bakoitzak bere gogoeta egin dezala. Eliza bere legeetan oinarritzen da, nahiz eta lege batzuk nahiko zaharkitua egon daitezkeen. Niri garrantzitsuagoa iruditzen zait bakoitzak bizi dezakeen fede esperientzia.

Elizak ez al dio askotan gizarteari bizkarra ematen?

Goi karguak ortodoxian eta lege-



“Eliza ofizialak bere iritziak ematen ditu, baina bakoitzak bere gogoeta egin dezala”



ria baita. Bizitza osoa besteei laguntzen ematen da eta horrek barrena lasaitzen du.

Dena den, fededun eta apaiz kopuruen jaitsiera dela eta, apaizen lana asko alda daiteke datozen urteetan...

Elizara hurbilduko direnen eta apaizen kopurua asko murriztuko da. Ikerketen arabera Gipuzkoako apaizen batzabesteko adina 70 urtekoa da. Taldea askoz ere murriztagoa izango da, baina horrek bere alde onak ere baditu. Apaiz bakoitzak inguru handiagoa hartu beharko du, baina talde txikietan fede sakonketa handiagoa egiten da. Politagoa ere izan daiteke. Elizaren hasierako egoerara bueltatzea izango da, eliza sorreran gauza txi-

mezua zabaltzea da. Elizak urte askotan eginkizun hori pixka bat ahaztuta izan du eta orain horren ondorioak jasaten ari da. Bestalde, elizak 250 orrialdeko dokumentu bat aurkeztu eta prentsak gai morbosoei soilik ematen die garrantzia. Gure herriko eliza hartu beharko genuke aintzat, Erromatik eta Madriletik datozen gauzak alde batera utzita.

Instituzioa aldatuko dela uste al duzu?

Emakumeen paperari dagokionez, adibidez, eliza aldatuko dela uste dut. Eliza erakunde oso zaharra da eta historian zehar gizarteak ere emakumeak gutxietsi ditu. Eliza gizartearekin batera aldatzen joan da eta oraindik ere aldatuko

aren menpe bizi dira, elizaren barne funtzionamendua zaintzearekin nahikoa dute. Herri mailan, ordea, eliza nahiko gizarteratua dago. Jende askok jotzen du apaizaren arazoak dituenen eta nire ustez laguntza lan polita egiten dute. Ez dakit jendeak zergatik duen elizari buruzko hain ikuspuntu iluna. Lagunartean gai hau ateratzen denean, "eliza diruaren gose beti" eta antzerakoak esaten dizkirate. Elizak astakeriak egin ditu, baina bere alde oso onak ere baditu: zergatik uzten da alde batera, adibidez, misioetan egiten den lana eta arreta jartzen da elizak esaten dituen gauzetan? Horrek eragiten dio jendeari elizaren aurkako jarrera. Nik ezagutzen dudana elizak ez du diru goserik.



Argazkia: ZUM

Bi jarrera, grina bera

Andoni Salamero eta Josi Labajosek poema liburu bana aurkeztuko dute abenduaren 3an, 20:00etan, Zumarragako Legazpi dorretxean. Andonik aspalditik zuen poema liburua kaleratzeko asmoa eta urte sabatikoa hartu zuen horretarako. Josi tentatu zuen eta, azkenean, elkarren babesaz, batak euskarazko liburua eta besteak gazteleraazkoa argitaratu du: "Zu. Ni. Bi. Bidean..." eta "Por tierra de nadie". Liburuak sustatzeko, poesia, musika eta dantza ikuskizuna ere prestatu dute. Bi sortzaile hauekin hitz egiten izan gara beraien lanaz eta Urretxu-Zumarragako kultur jardueraz.

Noiz eta nolatan elkartu ziren zuen bideak?

Andoni: Baldintza egokiak eman dira eta bi sentsibilitatek elkarri eskua eman diogu. Nik urtebete eman dut lan honetan sakontzen: nire poemei buruzko informazioa bildu nahi nuen, sakondu, bildu, poemak elkarren artean lotu... Lan hau bukatzen ari nintzenean Josirekin topo egin nuen eta berak ere poemak idazten zituela ikusi nuen. Liburu nola prestatzen ari nintzen erakutsi nion eta bera ere animatu zen. Aspaldi, poesia eta musika uztartzen zituen lana egin genuen elkarrekin Hits&Fits-ek bultzaturik. Esperientzia hura baliagarria izan zaigu oraingo honetarako.



Andoni eta Josi musikazale amorratuak ere badira



Josi: Duela urte pare bat hasi nintzen poesia idazten. Orduarte ondoren abestu beharreko testuak idazten nituen batez ere. Egun batean Andoniren etxera joan nintzen poema dexterekin bere iritzia jakin nahi nuelako eta orduan piztu zitzaidan argitaratzeko ideia. Etxean eduki baino, hobe argitaratu eta, beharbada, norbaitek beraietaz goza dezake.

Zuen elkarlanaren fruitu nagusia aurkezpen ikuskizuna da. Nolatan otu zitzaizuen hori egitea?

J.: Jakina da kaleratzen den produktu orok sustapena behar duela. Gure liburuak guk geuk argitaratu ditugunez, gu geu gara sustatzaileak. Liburuak ezagutzera emateko 12 poema musikatzea erabaki genuen, 6 Andonirenak eta 6 nireak. Ikuskizun hau prestatzen gozatu egin dugu, elkarrekin haserratu gara...

A.: Halako esperientziak sakontzeko oso baliagarriak dira eta bi herriotan lanean dabilzan elkarteei oso ondo etorriko litzaieke antzerako zer edo zertan parte hartzea. Sentsibilitate desberdinak hurbilazteko, jendea ezagutzeko, beste kontestu batean zein jarrera dugun ikusteko... balio du. Elkarlanak hobetzen laguntzen du. Gure lanak argitaratzea erabaki badugu,

lehen pausoak ematen dituzten autoreek argitaletxeen babesaren lortzeko zailtasunak dituztelako da. Diru kopuru bat genuen eta liburuetan inbertitzea erabaki genuen. Zer edo zer argitaratu, helarazi... nahi badugu, guk geuk egin behar dugula ikusi dugu. Prozesu guztia guk egin behar dugula. Aberasgarria da, baina lan handia eskatzen du. Izan ere, indarrak batzea eta musika eta literatura uztartzea zaila da. Gidoi batean oinarrituta, nik ikuskizunaren alde literarioa egin dut eta Josik alde musikala.

Zer nolakoa da aurkezpen ikuskizuna?

J.: Lanaren sustatzaileak egileok garenez, sustapen lan hau argitaletxe batek egin dezakeena baino hobea iruditzen zait.

A.: Hiru pertsonak parte hartu dugu: Ana Remirok dantza garaikidea egingo du, Josik musika joko du eta nik poemak errezitatuko ditut. Ikuskizunaren ardatza hitza da, baina hiru alorrak uztartzea, fusionatzea, lortu dugu. Ordubeteko iraupena duen ikuskizunean hiruon arteko konplizitatea nabari da.

J.: Gidoi bat idatzi eta 12 poema aukeratu ditugu, 6 Andonirenak eta 6 nireak. Poemaren arabera, pianoa, kitarra, armonika... jotzen dut. Dantza sartzearena Andoniren ideia izan zen. Hori prestatzeko

Juan Antonio Urbeltzengana jo genuen eta berak Ana Remiro hernaniarrarekin harremanetan jarri gintuen.

A.: Ikuskizuna Peio Biainek eta Josiren liburuaren hitzaurrea idatzi duen Martin Jauregiatzok aurkeztuko dute.

Ikuskizuna toki askotan aurkezteko asmoa al duzue?


A.: Zenbait udalekin harremanetan jarri gara uda aldean ikuskizuna hainbat tokitan aurkezteko. Tolosa, Oñati, Andoain, Urnieta, Donostia, Ordizia, Beasain eta Bilbon izan gara, besteak beste, ikuskizunaren berri ematen.

J.: Bion ibilbidea eta ikuskizunaren nondik-norakoak azaltzen dituen txostena banatu dugu Udaletan. Aurkezpen ahalik eta profesionalena egiten saiatu gara. Lan honek talde lan askok falta dutena du: Andoni eta biok %100ean inplikatu gara eta biok gogo bera jarri dugu.

Zer diozue zuen liburuez?

J.: Andoni apur bat ezagutzen dut eta oso pertsona zintzoa eta sentikorra da. Hori dela eta, bere poesia oso erraz ulertzen da, argia eta garbia da.

A.: Nik Josiren musikari alorra ezagutzen nuen eta oso pozgarria izan da



-INDUSTRIARAKO OSAGARRIAK
-ELEKTRAGAIK
-BURNIZKO TRESNERIA

Legazpi, 4 etxeazpia eskuina - ☎ 943724012 - Faxa: 943725431 - ZUMARRAGA

niretzat bere beste alorra ezagutzea. Idaztean bizitza zer den oso garbi azaltzen du. Gauzak espresatzeko erabiltzen dituen irudietan, oso argi ikusten da esperientzia asko ezagutu dituela. Biluztu egiten da, bizitza berari asko ematen ari zaiola eta berak trukean zer edo zer eman nahi duela argi ikusten da. Liburu honen bidez jende askok ezagutzen ez duen Josiren aldea ezagutu daiteke. Amodioaz, adiskidetasunaz, naturaz, bidaietako esperientziez... mintzo da bere poemetan. Desberdinak garen arren, espresatzeko modu garbiak elkartzen gaitu. Natura, giza harremanak... nire lanean oinarritzkoak dira eta Josiren poesia intimista nire poesiatik gertu ikusten dut. Bion libururak oso baikorrak dira. Bakarrik egotea hautatu duten, baina zentzumenak adi dituzten, bi pertsonen lanak dira.

J.: Andoni eta biok itxuraz oso desberdinak gara, baina gure bizitzaren ikuspegiak oso antzerakoak dira. Lanean gure desadostasunak izan ditugu, baina zintzotasunez hitz eginez ondo gainditu ditugu.

A.: Askotan gauzak argi ez esateagatik arazoak sortzen dira eta gure artean ez da hori gertatu.

J.: Izan ere, taldean lan egiteko hel-dutasuna eta errespetua behar da.

Urte asko daramazue kultur sormenean, nola ikusten duzue herriko egoera?

A.: Beste herri askotan baino talde mugimendu handiagoa dagoela iruditzen zait. Beste herri batzuetan diru gehiago dago, baina mugimendua falta da. Dena den, taldeen arteko elkarlan handiagoa egon beharko litzatekeela uste dut.

J.: Horretarako talde lanak zer

implikatzen duen ondo jakin behar da: zenbait gauza alde batera uztea, lan disziplina...

A.: Bakoitzak tokatu zaion errealtatea bizi du, baina zenbait gauzen alde elkarrekin borrokatu behar da. Jose Mari Etxaniz zenak sareak eratu behar zirela zioen: aurkezle, musikari... sareak. Hala, hauen beharra duten instituzioek badute nora jo. Baina sare horietako pertsonak hezi ere egin behar dira.

J.: Noski. Ekimen batean parte hartzen duen pertsona, entseiatzera joaten den jendea... akoplatzera joan behar da. Etxeko lanak eginak eraman behar dira. Gauzak argi izan behar dira. Jendeak kontzertuak jo nahi ditu, baina horretarako kontzertuak lortu behar dira, kartelak jarri behar dira, musika entzun behar da... inplikazioa behar da.

A.: Talde lanean, norberak egiten duen memoria egin behar du. Iñaki Bastarrika Hits&Fits-en lan hori egiten hasi zen eta oso garrantzitsua iruditzen zait. Horrek taldearen eta taldekideen ibilbidea argi erakusten du. Bestela iragana ahazten dugu eta egindako guztia galtzeko bidean jartzen dugu.

J.: Horrek lana eta ardurua suposatzen du eta, nire ustez, hori falta da. Gure belaunaldikook gauza asko egin genituen gaztaroan, baina guztia balekoa zela zirudien. Guztiak ez du balio, ordena behar da, baten batek lana zuzendu behar du, eztabai-datu egin behar da... ezin da guztiek diotena egin, hori nahaste-borrastea baita. Azken finean, helburua produktu ona lortzea da.

A.: Erratuta dagoenari, zerbait ulertzen ez duenari... oker dagoela, ulertzen ez duela... jakinarazi behar zaio.



Izenburua: Zu. Ni. Bi. Bidean... **Egilea:** Andoni Salmeron. **Maketazioa:** Jonmikel Intsausti. **Marrazkiak:** Olatz Goiburu. **Argazkiak:** Gorka Salmeron. **Kontrazala:** Iñaki Bastarrika. **Orrialde kopurua:** 104, 60 poema. **Salneurria:** 12 euro.




Izenburua: Por tierra de nadie. **Egilea:** Josi Labajos. **Marrazkiak:** Koldo Cadierno. **Hitzaurrea:** Martin Jauregialtzo. **Orrialde kopurua:** 209, 85 poema. **Salneurria:** 10 euro.

MURUA

Oinetako konponketa

Larruzko erropen konponketa.
Guraiza, labana... zorrozketak

Labeaga, 37 URRETXU
Golden plazoletan



Iguntze Aseginolaza: “Zelai gorri”-tik Errusiara

Iguntze Aseginolaza futbolari urretxuar gaztea Errusian izan da azaroa hasieran Euskadiko selekzioarekin nazioarteko areto futbol txapelketa bat jokatzeko. 20 urte besterik ez dituen arren, Iguntzek Ohorezko Mailako Goierri-EHU taldean jokatzeko du dagoeneko eta luzaroan futboleko jarraitzeko asmoa du.

Nolatan hasi zinen areto futbolean?

Atletismoa egiten nuen, eskola kirolean sekula ez baikenen futbol talderik izan. Urretxuko Aldiri Kiroldegian entrenatzen nuen eta Goierrikoek beraiekin areto futboleko aritza eskaini zidaten 12-13 urterekin. Gipuzkoa mailan jokatzeko genuen eta Euskadiko selekzioarekin jokatzeko ere hasi nintzen. Ondoren, nazional mailan jokatu nuen, gero berriro Gipuzkoa mailan eta, aurretik, estatu mailako Ohorezko Mailan jokatzeko aukera eskaini didate.

Beti Goierri taldean aritu al zara?

Eskola kirolean talderik ez zegoenez, Goierri edo Urolan jokatu beharra zegoen. Ni hasi nintzenez Goierri talde bakarra zuten eta, beraz, beti talde nagusian jokatu dut.

Nolatan aurten Ohorezko Mailan?

Goierri iaz edo duela bi urte, ez naiz ziur, EHUREkin hitzarmena sinatu zuten. Hitzarmen horretatik jaio zen taldeak iaz Euskal Ligan jokatu zuten eta denboraldi honetan Ohorezko Mailan plaza lortu du. Gipuzkoako bi talde bakarrik gaude maila gorenean: Tolosako Hegoalde eta gu. Orain arte, berriz, Gipuzkoa mailan jokatu duen Goierriren taldean aritu naiz.



Iguntzek makina bat ordu eman ditu Gaurko "zelai gorri"-n futboleko jokatzeko.

Salto handia nabaritu al duzu?

Entrenatzailea ezagutzen dut eta taldeko jendearekin aritua naiz, selekzioarekin eta. Dena den, alde handia nabaritu dut: aurkariak oso maila ona dute. Oraingo partidak bakarrik irabazi dugu, baina gustura nabil. Izan ere, talde honetan serioago hartzen dugu areto futbola.

Euskal Herri osoan neskak jokatzeko

duzue taldean?

Goierri-EHUK bi talde ditu, Gipuzkoa mailan jokatzeko duena eta gurea. Regional mailako taldean atzera eta bi nafar daude, baina gure taldean guztiak donostiarak dira bi brasildar eta ni izan ezik.

Zer moduz brasildarrekin?

Sardiniako txapelketa batean eza-

IZERDI PATSETAN

gutu zituzten eta hona etortzea eskaini zieten. Tolosan bizi dira eta oso gustura daude. Beraientzat hona etortzea, futboleko jokatzera gainera, arrakasta handia da. Brasilen eguneko 24 orduak baloiekin jolasten ematen dituztenez, maila ona dute. Dena den, ez daude defendatzerako oso ohituta.

Brasildarrak eta guzti dituen Ohorezko Mailako taldean izanik, minutu asko jokatzeko aukera al duzu?

Espero nuena baino gehiago ari naiz jokatzeko. Pozik nago. Orain arte partidak guztietan jokatu dit.

Nondik nora zabiltzate?

Orain arte Madrilera, Irla Kanariarretara eta Logroñora joan gara, baina Zaragozara, Murziara, Bartzelonara eta Galiziara joatea ere tokatuko zaigu. Esan bezala, partida bakarra irabazi dugu, baina gehiago egin dezakegula uste dut. Gure asmoa ari garen mailan jarraitzea da. Bestalde, etxean edo kanpoan jokatzeko asko egiten du. Talde batzuei euren etxean irabaztea oso zaila da. Guk Urretxun jokatzeko dugu eta jende dexente etortzen da ikustera, baina asko Donostiako jokalarien gurusoak eta lagunak dira. Dena den, jokatzeko orduan, ez zait asko inporta jende asko dagoen edo ez.

Taldeen artean alde handiak al daude?

Batzuek egunero entrenatzen dute, beste batzuk areto futboletik bizi dira... Guk astean hiru egunetan entrenatzen dugu Bidebietako kiroldegian eta gastuak besterik ez dizkigute ordaintzen. Dena den, beste batzuk okerrago daude, fitxak ere euren poltsikotik ordaintzen baitituzte.

Ikasketak eta futbola uztartzeko ondo moldatzen al zara?

Ingeniaritza ikasten ari naiz Ordizian eta klaseak arratsaldean ditut. Klasetik irten ondoren, Donostiara joaten naiz entrenatzera. Etxera oso berandu helitzen naiz eta ikasketak baztertu samar ditut, baina ez futbolaren erruz.

Luzaroan jokatzeko jarraitzeko asmoa al duzu?

Ez dut uste futbola utziko dudunik, asko gustatzen baitzait. Ohorezko Mailan jarraitzerik izango ez banu, inongo arazorik

gabe itzuliko nintzateke herrian entrenatzen duen taldean jokatzera. Txikitatik kirol guztiak oso gustukoak ditut, baina batez ere futbola. Gainera "zelai gorrian" makina bat ordu eman ditut.

Ez al zara sekula zelai handian aritu?

Ez. Argixaon txapelketaren bat jokatu dut, baina ez oso serio. Dena den, zelai handian frogatzea pentsatu izan dut. Aurten, Ohorezko Mailan jokatzeko aukera suertatu aurretik, Argixaon jokatzera joatekotan nintzen. Baina Urolak ez du nesken

“Ohorezko Mailan jarraitzerik izango ez banu, arazorik gabe itzuliko nintzateke herriko taldera”

talderik atera eta Urolan aritzen ziren neska batzuk areto futboleko hasi dira. Azken finean, zelai handian edo txikian, futbola futbola da. Gainera, errazagoa iruditzen zait areto futboleko aritu dena futbolera ohitzea. Izan ere, areto futboleko teknika beharrezkoa da eta futboleko fisikoki ondo moldatzearekin aski izan daiteke.

Euskal futbol taldeak jarraitzen al dituzu?

Ez naiz oso zaletua. Osasunaren alde egin dut beti, nire inguruan Realzaleak direnak Athletic-en aurkakoak baitira eta horrek asko izorratzen bainau. Realak irabaztea atsegin dut, baina baita Athletic-ek eta Osasunak irabaztea ere. Dena den, ikustea baino, jokatzeko nahiago dut.

Euskadiko selekzioarekin jokatu izan duzula esan duzu...

Dexentetan. Errusiara ere Euskadiko selekzioarekin joan gara, Eusko Jaurlaritzaren bidez uste dut. Bielorrusia, Ukraina eta Italiako selekzioen eta Errusiako bi talderen aurka jokatu dugu. San Petersburgon izan gara eta gustura ibili gara. Oso toki polita da, baina janaria oso txarra zen.

EDURNE

GIZONEZKOEN
JANTZIDENDA ESKUZ
ALDATU NAHI DA

☎ 943 72 14 17



Edergintza

Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium

Labeaga, 2 URRETXU ☎ 72 25 13



ALTZARIAK

MERKA-UROLA

Mugitegi, 17 Tel. eta faxa 943 72 58 28
URRETXU

centro óptico
Javier Arratibel
óptica

Ikusmenaren neurketa - Begietako tentsioaren neurketa - Graduatutako eta eguzkitarako betaurrekoak - Lentilak - Termometroak eta barometroak

Soraluze, 10 ZUMARRAGA
☎ 943 72 54 84

URKI

liburudenda



Secundino Esnaola, 3
☎ 943 72 42 98
ZUMARRAGA



Jose Luis Lopez, "Txelu"

Jose Luis, Zelai-Arztin eta Institutuan unibertsitatea bitarteko ikasketak egin ondoren, Oñatira joan zen enpresa-ikasketak egitera. Karrera bukatzeko ikasgai bakarra gainditzea falta zitzaion, baina ez zuen gainditzea lortu. Duela 12 urte geroztik, Argixaoko zaintzailea da. "Garbiketa, mantenu eta zainketa lanak egiten ditut. Lanik handiena partida egunetan izaten da eta kanpotik datozen taldeekin kontu handiz ibili behar da, galzen dutenean edo jokalariren bat kanporatzen dietenean ateak ostikoz irekitzeko ohitura baitute. Aurten, lau ate hautsi dituzte dagoeneko".

Jose Luisek azken 12 urteotan Argixaotik pasa diren jokalaria, entrenatzaile, direktibo eta hauen guztien senitartekoak ezagutzen ditu dagoeneko eta oso harreman ona du guztiekin. Bere lana gustuko du eta lan honi esker korrikan hasi zen, gainera. "65 urteko Agustin Benitezekin entrenatzen dut eta Donostiako maratoia 7 aldiz egin dut dagoeneko. Ez naiz oso korrikalari azkarra, baina bai gogorra. Hori dela eta, mendian korrika egitea ere asko atsegin dut".

-Zer izan nahi zenuen umetan?

Futbolaria, beharbada. Lehen futbola gustukoa nuen, baina astebururo hainbat partida ikusi ondoren...

-Aisialdian zer egitea atsegin duzu?

Korrika egitera, mendira joatea, perretxiko bila joatea, interneten nabigatzea, herrietako alde zaharrak bisitatzea...

-Bizitzeko toki bat?

Zumarraga bera, baina eguraldi hobea egitea gustatuko litzaidake.

-Gipuzkoako futbol zelai gustukoena?

Elgoibarkoa.

-Urola ikusi duzun jokalaria onena?

Alberto Alejandro. Txikitatik ezagutzen dut eta egun osoa Argixaon ematen zuen. "Musti" eta Mendiluze ere oso onak izan ziren.

-Zein dator oso ona?

Urolan aritutako Xabier Jorge eta Mikel Balenziaga Realean daude eta Aitor Calvo, berriz, Eibarren.

-Zein maratoi korritzea gustatuko litzazuke?

Zegamako mendi maratoia egitea gustatuko litzaidake. Duela urte batzuk New York-ekoa egiteko tentatua egon nintzen, baina diru eta denbora asko behar zen.

-Zer da gogorragoa, maratoia korritzea ala Argixao zaintzea?

Gogorrera maratoia korritu ondoren Argixao garbitzea da.

-Gustuko maratoilaria?

Diego Gartzia, goizetan Argixaora etortzen zen korrika egitera.

-Ilehoriak ala beltzaranak?

Beltzaranak.

-Egindako azken oparia?

Emazteari oparitu nion pultsera.

-Eta jasotakoa?

Ordenadorerako bozgorailuak.

-Data bat?

Aurtengo abuztuaren 2a, nire alaba jaio baitzen.

-Neska eta mutil izen bana?

Maria eta Luis.

-Zein egunkari irakurtzen duzu?

DV.

-Gustuko telebista saioa?

"La mirada mágica", bidaiei buruzkoak eta "Homo zapping".

-Bereziki gorroto duzuna?

"Ana y los siete".

-Liburu bat?

Gutxi irakurtzen dut. Irakurri dudana azkena abandonatutako herriei buruzkoa da. Dena den, errepide gidarekin orduak ematen ditut.

-Filme bat?

"Días de fútbol".

-Soinu bat?

Kitarrarena.

-Usain bat?

Itsasoarena.

-Janari bat?

Amak egiten duen patata tortila eta aitaginarrebak iberiar erara txingarretan egiten duen haragia. Extremaduratarra da eta, gainera, harakina.

-Ura ala...

Oportoa eta garagardoa. 300 garagardo botila ditut.

PREMANK

KANPO-KONTRATAZIO BIDEZKO PREBENTZIO ZERBITZUA

**GURE LANAK
PREBENTZIOA
DU HELBURU**




KALITATEZKO ZERBITZU ERAGINKORRA
GERTUTASUNA, BIZKORTASUNA ETA BEZEROARI ARRETA

Labeaga, 56-58 - 20700 URRETXU (Gipuzkoa)
☎ 943 03 66 94 - ☎ / fax: 943 72 64 63
e-mail: premank@euskalnet.net

IRNASA EURO, S.L.

AHOLKULARITZA ETA KALITATE,
INGURUMEN ETA
LAN-ARRISKUEN ARLOKO
SISTEMAK

Labeaga kalea, 60 ent. N
Tel. / fax: 943 72 64 63
e-mail: irnasa@facilnet.es
URRETXU



SUKALDE ERAKUSKETA



Ipeñarrieta, 5
☎ 943 72 50 75
URRETXU

San Lorenzo, 1
☎ 943 53 35 48
OÑATI

Udala enparantza
☎ 943 79 00 43
ARRASATE